



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko maiatzaren 29a

69. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duena. Sustapen Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Proposamena bazter utzi da (7. or.).
- Foru Lege proposamena, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina hein batean aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (8. or.).

#### C SAILA:

##### **Bestelako proposamenak:**

- Lege proposamena, Hipoteka Legeko 206. artikulua aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (9. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako landa eremuetako populazioak osasun-zerbitzua dela-eta dituen beharrezanezi eta osasun-arreta jarraituaren ereduaren inefizientziei buruzko ebaluazioa aurkez dezan, bai eta funtzionamenduari buruzko plana ere. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egutegi berri bat planifika dezan, "Gizakia Helburu" Fundazioaren Zabaldekako egoitza berria eraikitzeko. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garapen ekonomiko-industrialerako plan bat presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan Arartekoak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari egin dizkion gomendioak, energia berriztagarriak sustatzeko laguntzak ordaintzeari ekitearen gainekoak. Mozioa erretiratzea (11. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko eskaintza turistikoaz informatzeko Iruñean erabili asmo dituen baliabide presentziaiei buruzkoa. Galdera erretiratzea (12. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duena.**

*SUSTAPEN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Sustapen Batzordeak onetsitako irizpena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari buruzkoa. Proposamen hori 2013ko abenduaren 20ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**IRIZPENA**

Sustapen Batzordeak 2014ko maiatzaren 21ean eta 22an egindako bileran onetsia

**Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duena**

*ZIOEN AZALPENA*

Garraiorako eskubidea, hau da kalitate eta prezio egokian hiritarren mugikortasuna bermatzea, aginte publikoen betebeharra da, eta arazo horri taxuzko irtenbidea ematen saiatu beharra dute.

Nafarroatik atera gabe egiten den garraioaren arloan Foru Komunitateak erabateko eskumena du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 49.1.f) artikulua indarrez.

Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko 8/1998 Foru Legeak konponbidea eman zien Iruñerriko metropolialdeko bidaiari-garraio erregularrak zituen disfuntzioei. Eskumen administratiboen banaketak sortzen zituen disfuntzio horiek. Izan ere, hiri garraioa, udalerrietako mugen barru-

koa, udalen eskumenekoa zen –kasu honetan Iruñeko Udalak bakarrik erabiltzen zuen eskumena–, eta hiri arteko garraioa, Iruñearen eta metropolialdeko gainerako udalerrien artekoa, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekoa; banaketa hori ez zetorren bat herritarren joan-etorrien benetako eremuarekin.

Foru lege horrek integrazio administratiboaren konponbidea arautu zuen garraio agintaritzak bakarrik ezarri eremu osorako; hain zuzen ere Iruñeko Mankomunitateari esleitu zion zerbitzuaren kudeaketa. Zerbitzuaren eremuan lehendik zegoen eta beste zerbitzu publiko batzuk ematen zituen administrazio bat zen, berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna zuena, eta udalek Mankomunitatean zuten partaidetzak bermatu egiten zuen haien autonomia.

Mankomunitateak Iruñerriko bidaiari-garraio erregularraren gaineko eskumen berri horiek hartu zituen 1999ko apirilaren 26an, eta eskualdeko hiri garraioeko zerbitzu berria abian jarri zen 1999ko uztailaren 26an. Ordutik aurrera ez ziren bereizi hiriko zerbitzuak eta hiri artekoak.

8/1998 Foru Legeak eskualdeko garraio zerbitzua planifikatzeko tresna bat taxutu zuen eta Iruñerriko Hiriko Garraioaren Plana deitu zion.

Foru lege horren 5.1 artikulua arabera, Nafarroako Gobernuari dagokio Iruñerriko Hiriko Garraioaren urte anitzeko Plana onestea, eta zerbitzuaren titular den entitateak, hots, Iruñerriko Mankomunitateak sustatu behar du plan hori.

Denboraren buruan egiaztatu da plana onesteko prozedura ez dela eraginkorra, eta ez da beharrezkotzat jotzen Nafarroako Gobernuaren tutoretza; entitate eskudunak berak onetsi behar luke plana, hori bai, foru lege honetan jasotako printzipioei men eginez.

Horregatik garrantzitsua da gogora ekartzea aipatutako printzipioek diotena: zerbitzuaren kali-

tatea, eraginkortasuna eta efizientzia etenik gabe hobetu behar dira eta administrazio guztiek lagundu behar dute kalitatea hobetzen, horretarako planeamendu-tresnak onetsiz eta garraio publikoaren abiadura komertziala hobetzeko ekintzak garatuz. Halaber, garraioaren erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifen bidez zerbitzuaren kostutik zenbat estaliko den finkatzen da, eta gainerakoa nola banatuko den ukitutako administrazioen artean, hau da, Foru Komunitateko administrazioen eta udalen artean.

Banaketa horretan Foru Komunitateko Administrazioak parte hartzearen arrazoi nagusiak dira, batetik, ekarpena egitea bere eskumenekoa izan zen hiri arteko garraioa –Iruñearen eta inguruko udalerrien artekoa– mantentzeko, eta bestetik, toki entitateak finantzatzeko ekarpena egitea, zeina, Espainiako Konstituzioaren 142. artikulua agintzen duen bezala, Estatuko Administrazio Orokorrak eta autonomia erkidegoek bildutako tributuen etekinak toki entitateei emanaz gauzatu behar baita.

Bestalde, arautzen den garraioa hiri garraiatzat definitzen denez, Nafarroako Gobernuak zerbitzuaren eremua alda dezake foru dekretuz, zerbitzu horrek Foru Komunitatearen eskumenei eragiten diolako.

Foru lege hau eman da Nafarroatik atera gabe egiten den garraioaren arloan Foru Komunitateak duen erabateko eskumenaz baliaturik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 49.1.f) artikulua indarrez.

**Artikulu bakarra.** Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legearen manu hauen testua honela izanen da:

Bat. 3.1. artikulua.

“1. Foru lege honek arautzen duen hiriko garraioaren aplikazio eremua honako udalerrri hauek osatuko dute:

- Antsoain.
- Aranguren; hain zuzen ere, Mutiloako bizigunea.
- Barañain.
- Beriain.
- Berriobeiti; hain zuzen ere, Aitzoain, Artika, Berriobeiti eta Berriogoitiko kontzejuen eremua.
- Berriozar.
- Burlata.
- Zizur; hain zuzen ere, Zizur Txikiko Kontzejuaren eremua.

- Eguesibar; hain zuzen ere, Gorraitz eta Sarriurengo biziguneak eta Olazko Kontzejua.
- Esteribar; hain zuzen ere, Ollokiko bizigunea.
- Ezkabarte; hain zuzen ere, Arre eta Orikaingo kontzejuak.
- Galar; hain zuzen ere, Cordovillako Kontzejua.
- Uharte.
- Noain (Elortzibar); hain zuzen ere, Noaingo bizigunea.
- Orkoi.
- Iruña.
- Atarrabia.
- Zizur Nagusia”.

Bi. 4. artikulua izenburua aldatzen da. Hemendik aurrera, “Eskumenen araubidea” izanen da.

Hiru. 4.2. artikulua

“4.2. Iruñerriko Mankomunitateari dagokio foru lege honen xede den garraio publikoko zerbitzuaren titulartasuna eta berari esleitzen zaio zerbitzu hori kudeatu eta antolatzeko eskumena, aplikatu beharreko legediari jarraituz.

Iruñerriko hiriko garraio publikoaren zerbitzua erabiltzeko udalerriek izanen duten integrazio epea 9 urtekoa izanen da, gutxienez”.

Lau. 4. artikuluko 3., 4. eta 5. idatz-zatiak kentzen dira.

Bost. 5. artikulua kentzen da.

Sei. 6. artikulua ondoren kapitulu berri bat eransten da, II. bis kapitulua. Hona hemen:

“II. bis KAPITULUA

Zerbitzua planifikatzea eta hirigintza-planeamenduan integratzea

6. bis artikulua. Zerbitzua planifikatzea.

1. Foru lege honen xede den zerbitzua Iruñerriko Hiriko Garraioaren Plana izeneko tresnaren bidez planifikatu eta antolatuko da. Urte anitzeko plana izanen da eta Iruñerriko Mankomunitateak onetsiko du.

Onetsi aurretik, Iruñerriko Mankomunitateak plan hori Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari helaraziko die, azter dezaten eta ekarpenak egin ditzaten.

2. Iruñerriko Hiriko Garraioaren Planean foru lege honen xede den zerbitzua ematea arautuko duten ildo nagusiak zehaztuko dira, baita programazio eta plangintzako oinarriko printzipioak ere; eta, gutxienez, honako gai zehatz hauek ukituko ditu:

a) Helburu eta irizpide orokorrak.

b) Zerbitzuen plangintza.

c) Inbertsioen programazioa.

d) Plana betetzearen ebaluazio ekonomiko eta finantzarioa.

e) Tarifen markoa.

f) Planaren helburuak lortu ahal izateko zerbitzuen titular den entitateari Foru Komunitateko Administrazioak eta foru lege honen aplikazio eremuko udalek zer ekarpen egin behar dioten zehaztea.

3. Garraio planak honako gidalerro hauei jarraituko die:

a) Kalitate oneko garraio zerbitzu publikoa ematea, eraginkortasun eta efizientzia egokiekkin.

b) Garraio publikoaren erabilera sustatzea, hura integratuz hirigintza-planeamenduko tresnetan.

c) Zerbitzuaren abiadura komertziala hobetzea, antzeko metropolialdeetan lortu diren emaitza onenen pareko balioak lortzeraino.

d) Zuzeneko diru-sarrerak, erabiltzaileei kobratzetik heldutakoak nahiz zerbitzuari lotutako beste-lakoak

Eskualdeko hiri garraioa erabiltzeagatik erabiltzaileek txartela zenbat ordaindu beharko duten erabakitzerakoan, zerbitzu publikoa izateari ematen zaio lehentasuna, eta ez zerbitzuaren autofinantzaketari.

Zerbitzuaren zuzeneko finantzaketa ahalik eta handiena izatea bilatu beharko da, baina, betiere, zerbitzu horren erabilera masiboa hartu beharko da oinarri, eta ez ordea txartelak, edozein modalitatekoak, garestitzea, era horretan handitzeko zuzeneko diru-sarrerak izateko gaitasuna.

Garraio publikoaren eskuragarritasuna eta indartzea bermatuta egon daitezen garraio pribatuaren aurrean, erabiltzaileen txartelen bidezko zuzeneko zerbitzu-finantzaketa ez da inoiz ere kostuaren ehuneko 50 baino handiagoa izanen.

Zerbitzuari lotutako diru-sarreratzat hartuko dira finantzaketarako baliabideak eskuratzeko bidea ematen dutenak, hala nola publizitatea, babesletza edo bestelakoak. Diru-sarbide horiek ezin izanen dute inoiz oztopatu edo arriskuan jarri zerbitzu-emate egokia.

Foru lege honetan 2014rako ezarritako ekarpena erreferentzia hartu eta, zerbitzuaren etorkizuneko ekitaldi ekonomikoak ixtean, idatz-zati honetatik

heldutako diru-sarrerek ezarri den ehunekoa gainditzen badute, ezin izanen dira inola ere igo indarreko tarifak, ezta KPIra egokitzeko ere.

e) Ekarpinak eta transferentziak, bai zerbitzuari atxikitako udalek eginak, bai zerbitzua ematen duen entitateak zuzenean eginak.

Zerbitzuari atxikita dauden udalek eta zerbitzua kudeatzen duen entitateak eginen duten ekarpen ekonomikoa kalkulatzeko, zerbitzuaren ustiapen-defizitari begiratuko zaio: ekarpen horiek defizit horren ehuneko 35 eginen dute, behin idatz-zati honetako d) letratik heldutako diru-sarrerak kenduta.

Ekarpina zuzenean eginen du zerbitzua ematen duen entitateak, baldin eta baliabiderik badu eta hala erabakitzen badute kasuan kasuko bere organoek, edo zerbitzuari atxikitako udalek, duten biztanle-kopuruaren proportzioan.

Letra berria) Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik heldutako transferentziak, helburu honetara lotuak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrek, urtero, behar den diru-kopurua ezarriko dute, izaera finalistaz, behin idatz-zati honetako d) letran jasotako ekarpenak kenduta kalkulaturako zerbitzuaren ustiapen-defizitaren ehuneko 65 estaltzeko.

f) Foru lege honen aplikazio eremuko udalerriei dagokien zatia biztanle kopuruaren arabera banatzea udalerriri horien artean. Eskaini behar den gutxieneko zerbitzuaren kostua kontuan harturik kuota finkoa edo gutxieneko zenbatekoa ezarri ahal izanen da. Bestalde, ekarpen hori modulatu ahal izanen da, zerbitzuaren abiadura komertziala hobetze eta garraio publikoa hirigintza-antolamenduan egoki integratze aldera udal horiek hartzen dituzten neurrien arabera.

6. ter artikulua. Hirigintza-planeamenduan integratzea.

1. Lurralde eta hiri antolamendurako tresnek Garraio Planean ezarritako helburu eta irizpide funtzionalak jasoko dituzte eta espazioan zehaztuko dituzte.

2. Garraio Planean aztertu eginen dira lurralde antolamenduko tresnek garraio publikorako ezarritako ibilbideak edo lehentasunezko trazaduren sarea, eta egokitzen jotzen diren aldaketak proposatuko dira zerbitzuaren etorkizuneko plangintzari begira.

3. Hirugarren artikuluan zehaztutako eremuko udalek sustapen lana egin beharko dute beren hiri-planeamendua lagungarria izan dadin garraio publiko eraginkorra eta herritarrentzat eskuragarria lortzeko. Zerbitzua behar bezala emateko behar den leku-erreserba eginen dute. Urbanizazio

proiektuen bitartez planeamendua betetzerakoan elementu eta diseinu egokiak ezarri beharko dira, garraio publikoko zerbitzua hobetuko dutenak, bereziki haren abiadura komertziala. Horretarako garraio publikoa lehenesten duten neurriak ezarriko dira, hala nola:

- a) Autobus-erreiak.
- b) Semafoetara hurbildu ahala pasatzen uzteko sistemak.
- c) Zirkulazioko erreian bertan gelditu ahal izatea, alboratu gabe.
- d) Galtzadan abiadura motelarazteko diseinu egokia duten sistemak ezartzea, garraio publikoaren ohiko abiadura murrizten ez dutenak.

4. Iruñerriko Mankomunitateak lurralde eta hiri antolamenduko tresnen eta urbanizazio proiektuen gaineko irizpenak eman beharko ditu, haiek garraio publikoan eragina duten aldetik: zerbitzua emateko egiturazko beharrak eta behar operatibok, haren finantzaketa eta bideragarritasun ekonomikoa, sare osoan duen eragina, eta garraio zerbitzuari eragiten dion beste edozein inguruabar.

Idatz-zati berria. Eskualdeko hiri garraio publikoaren zerbitzuaren hobetzea nabarmena izan dadin kalitateari, kudeaketari eta kostuen murrizketari dagokionez, hori lortzea helburu izanen duten jardunbideak hartuko dira, hala hirigintzaren arloan, nola bestelakoetan: ibilbideak, zerbitzuaren abiadura, errei propioak, geltokiak eta abarrekoak. Horretarako, garraio publikoari emanen zaio lehenetasuna, eta ez ibilgailu pribatuari.

Horretarako, foru lege hau onetsi eta urtebeteko epean, udalez gaingiko plan sektorial bat presatuko da, behar horiei aurre egiteko eta jarduketak gauzatzeko jardunbide guztiak bilduko dituena. Udalez gaingiko plan sektorial hori zerbitzua kudeatzen duen toki entitatearekin adostuko da.

Behin udalez gaingiko plan sektoriala onetsita, hurrengo bi ekitaldietan exekutatu da, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan horretarako jasoko diren kontu-sailen kargura”

Idatz-zati berria. 8. artikuluari idatz-zati bat gehitzen zaio:

“2. Garraio Plana ez baldin bada aldatzen edo gaurkotzen, eta kasu horretarako aurreikuspen berezirik ez baldin badu, automatikoki beste ekitaldi ekonomiko baterako luzatuko da, Nafarroako kontsumorako prezioen indizeari dagokion gehikuntzarekin. Iruñerriko Mankomunitateak plana eguneratzearen ondoriozko aurrekontu-beharrak ebaluatuko ditu; ebaluatze hori planean jasotako oinarriak erabiliz eginen da, eta indarrean diren kontratu eta konpromisoak aplikatuz, ekitaldi

berriaren errealitatea osatzen duten aurreikuspenen mugapean. Luzapenetik heldutako ekarpenak aski ez badira horrela kalkulaturako aurrekontu-beharrak orokorki orekatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ekarpenak eta foru lege honen aplikazio-eremuko udalen ekarpenek orekatu egin beharko dituzte aipaturako aurrekontu-beharrak; horretarako, proportzio berean doitu da luzatzen den planeko azken ekitaldirako ezarritako aurrekontu beharrak”

Zazpi. Lehen xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Lehena. Sistema horren bideragarritasuna eremu txikiago batean.

Foru lege honen aplikazio eremuko udalerriren batek Mankomunitatek ateratzea erabakitzen badu, Iruñerriko Hiriko Garraioaren Plana aldatu beharko da, aztertzeko foru lege honetan araututako hiriko garraio publikoaren sistema gelditzen diren lurraldeetan kudeatzea bideragarria ote den.

Iruñerriko Mankomunitateak erabakiko balu sistema hori gelditzen den lurraldean ez dela bideragarria, urtebeteko epean beste kudeaketa-modu bat sustatzeko eskatu beharko dio Nafarroako Gobernuari”

Zortzi. Bigarren eta hirugarren xedapen gehigarriak kentzen dira.

Bederatzi. Xedapen iragankorrak kentzen dira.

**Xedapen gehigarri bakar berria.** Gizarte-bonua.

Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Iruñerriko Mankomunitateak gizarte-bonu bat ezartzeko proposamen bat eginen du; bonu horrek Gizarteratze-Errentaren taulak hartuko ditu erreferentzia.

**Azken xedapenetan lehena.** Arau osagarriak.

Foru lege honetan arautzen den bidaiari-garraio erregularrari dagokionez, bertan xedatuta ez dagoen orotan Errepideko Hiri barruko Garraio Publikoa arautzen duen Foru Legean ezarritakoari jarraituko zaio.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Arauak emateko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duena.**

### *PROPOSAMENA BAZTER UTZI DA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa eta 2008ko maiatzaren 12ko Lehendakariaren erabakia betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Sustapen Batzordeak onetsitako irizpen negatiboa Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamenari dagokionez, zeina 2013ko abenduaren 20ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

### **Irizpen negatiboa**

Sustapen Batzordeak 2014ko maiatzaren 22an onetsitakoa

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamenari dagokionez, ezezkoa eman zaio inolako testurik onesteari eta, beraz, aipatu foru lege proposamena bazter utzia gelditzen da.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina hein batean aldatzen duena.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2014ko maiatzaren 22an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Foru Lege proposamen bat aintzat hartzea, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina hein batean aldatzen duena. Proposamen hori

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, eta 2014ko apirilaren 4ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



---

**C saila:**  
**BESTELAKO PROPOSAMENAK**

---

**Lege proposamena, Hipoteka Legeko 206. artikulua aldatzen duena.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2014ko maiatzaren 22an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Hipoteka Legeko 206. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, eta 2014ko apirilaren 22ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

---

E saila:  
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako landa eremuetako populazioak osasun-zerbitzua dela-eta dituen beharrizanei eta osasun-arreta jarraituaren ereduaren inefizientziei buruzko ebaluazioa aurkez dezan, bai eta funtzionamenduari buruzko plana ere.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, 2014ko maiatzaren 22an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako landa eremuetako populazioak osasun-zerbitzua dela-eta dituen beharrizanei eta osasun-arreta jarraituaren ereduaren inefizientziei buruzko ebaluazioa aurkez dezan, bai eta funtzionamenduari buruzko plana ere".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du Nafarroako landa eremuetako populazioak osasun-zerbitzua dela-eta dituen beharrizanei eta osasun-arreta jarraituaren ereduaren inefizientziei buruzko ebaluazioa aurkez dezan, bai eta funtzionamenduari buruzko plana ere, eztabaidatua izan dadin, eta hori guztia egin dezan mozio hau onetsi eta 15 eguneko epean".

Iruñean, 2014ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egutegi berri bat planifika dezan, "Gizakia Helburu" Fundazioaren Zabaldikako egoitza berria eraikitzeko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, 2014ko maiatzaren 22an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egutegi berri bat planifika dezan, 'Gizakia Helburu' Fundazioaren Zabaldikako egoitza berria eraikitzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du exekuzio-egutegi berri bat presta dezan, 'Gizakia Helburu' Fundazioaren Zabaldikako egoitza berria eraikitzeko, eta egutegi hori betetzea ahalbidetuko duten finantzaketa-bideak bila ditzan".

Iruñean, 2014ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da garapen ekonomiko-industrialerako plan bat presta dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, 2014ko maiatzaren 22an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da garapen ekonomiko-industrialerako plan bat presta dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du sei hilabeteko epean taxutu eta Legebiltzarrera igor dezan Nafarroako Ekonomia-eta Industria-plana, enplegu egonkor, seguru eta

kalitatezkoa sortzeko neurriak jasoko dituen". Halaber, enpresa-ehuna ezartzeko pizgarriak emanen ditu, bereziki enpresen deslokalizazio eta desagertze handiena pairatu duten eskualdeetan.

Orobat ezarriko ditu enpresa-inbertsiorako eta ikerkuntza, garapena eta berrikuntza –I+G+B–garatzeko pizgarriak, jarduketa-esparru berriak identifikatuko ditu eta dagoen enpresa-ehunaren modernizazioa, produktibitatea eta egonkortasuna sustatuko ditu".

Iruñean, 2014ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bete ditzan Arartekoak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari egin dizkion gomendioak, energia berriztagarriak sustatzeko laguntzak ordaintzeari ekitearen gainekoak.**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarrak, 2014ko maiatzaren 22an egindako Osoko Bilkuran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Socialistas de Navarra parlamentutaldea aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen zen bete zitzan Arartekoak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari egin dizkion gomendioak, energia

berriztagarriak sustatzeko laguntzak ordaintzeari ekitearen gainekoak. Mozioa 2014ko apirilaren 4ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko eskaintza turistikoaz informatzeko Iruñean erabili asmo dituen baliabide presentzialei buruzkoa.**

*GALDERA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarrak, 2014ko maiatzaren 22an egindako Osoko Bilkuran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera zen Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko eskaintza turistikoaz informatzeko Iruñean

erabili asmo dituen baliabide presentzialei buruzkoa, eta 2014ko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera